

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2709

IRAGARKIA, 2024ko maiatzaren 16koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurreko informazioan jartzen baitira proiektu honen alde zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurreko informazioan jartzen baitira proiektu honen alde zuzendariarena eta eraikitze baimenaren eskaerak eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskaera: Elgea-Itxaso zirkuitu bakuneko 220 kV-ko energia elektrikoa garraiatzeko linea berritzea, T389-SE Itxaso tartean, Elgeako azpiestazioaren eta Itxasoko azpiestazioaren artean, Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoetan.

48/2020 Dekretuaren 9. eta 10. artikuluetan (48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak), 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan (1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa) eta 24/2013 Legearen 53. artikulutik 56.era bitartean (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa) ezarritako ondorioetarako, eta bat etorritik Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin, jendaurrean jartzen da alde zuzendariaren administrazio-baimena, eraikitze baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatzen den instalazio elektronikoaren proiektua.

Espedientea: 01-AT-Y-2023-00038/ 20-AT-2023-125.

– Eskatzailea: Red Eléctrica de España SAU. Egoitza: Paseo del Conde de los Gaitanes, 177, 28109 Alcobendas (Madril).

– Helburua: alde zuzendariaren administrazio-baimena, eraikitze baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

– Kokalekua: Barrundia, Donemiliaga, Asparrena, Zaldondo, Partzuergo Orokorra (Araba), Partzuergo Orokorra, Zegama, Segura, Zerain, Mutiloa, Gabiria eta Ezkio-Itsaso (Gipuzkoa).

– Aurrekontu osoa:

a) Arabako lurralde historikoa: 2.450.273,46 euro.

b) Gipuzkoako lurralde historikoa: 3.865.309,51 euro.

– Xedea: gaur egun erabiltzen den «Elgea-Itxaso» izeneko linea, 220 kV-ekoa, berritzea, Barrundiako udal-mugarrean dagoen (Araba) T-389 euskarritik Itxasoko azpiestazioraino, Ezkio-Itsaso udal-mugarrean (Gipuzkoa).

– Instalazioaren ezaugarriak: proiektuan jasotzen direnak. María Belén García Santos ingeniari teknikoak sinatu zuen proiektua 2023ko irailean, eta espedientean dago jasota.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak eman behar dio proiektu honi alde zuzendariaren administrazio-baimena. Jendaurrean erakusteko izapidea bete behar du baimena horrek, dena den, ingurumen-inpaktuaren azterketarekin batera, horrela ezartzen baita Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek 30 egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratzen den egunetik aurrera, dokumentazioa azter dezaten Industria Administrazioaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Easo kalea 10, 1., Donostia), Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego 2, 3. solairua, Vitoria-Gasteiz), tartean dauden udalerrietako udal-teeetan eta/edo Interneteko www.euskadi.eus webgunean (Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuen jendaurreko informazioa: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/energia-meategiak/hasiera/>)

Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu ahal izango dituzte egokitzat jotako alegazioak, eta horretarako aukera hauek daude: idatziz aurkeztu ahal izango dira, euskarri fisikoan (bi ale), erregistro orokorretan; EAEko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikorokorrean (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako moduren batean. Alegazioak aurkezteko epea adierazitako da.

Ohartarazpen moduan, pertsona juridikoek, nortasun juridikorik ez duten entitateek eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatuta dauden bestelako subjektuek nahitaez erabili behar dituzte baliabide elektronikoak administrazio publikoetan, administrazio-prozedura bateko edozein izapide egin ahal izateko. Hori dela eta, jendaurreko izapide horretan alegaziorik aurkeztu behar badute, baliabide elektronikoak erabiliz egingo dute nahitaez.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 16a.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.